

18 URTEZ AZPIKO EUSKADIKO TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA. (2018ko irailaren 29an, Barakaldon).

Clara Campoamor Kultur Etxean jokatu zen, larunbatean, goizean eta arratsaldean. Ordubeteko partidak izan ziren, lau mahaitan jokatuak. Sistema suitzarra erabili zen, lau txandatan. Taldearen neurketa irabazteak 2 puntu ematen zituen eta berdinketak bat.

AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Altzaga (Leioa, Bizkaia) – 7 puntu.**
- 2) **Oberena (Iruñea, Nafarroa) – 6 puntu.**
- 3) **Sestao (Bizkaia) – 6 puntu.**
- 4) Gros (Donostia, Gipuzkoa) – 5 puntu.
- 5) Marlexka (Hondarribia, Gipuzkoa) – 5 puntu.
- 6) Martintxo (Gasteiz, Araba) – 5 puntu.
- 7) Conteneo – Rey Ardid (Bilbo, Bizkaia) – 4 puntu.
- 8) Santurtzi (Bizkaia) – 3 puntu.
- 9) Abadiño (Bizkaia) – 3 puntu.
- 10) Barakaldo (Bizkaia) – 2 puntu.
- 11) Arrasate-Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) – Puntu bat.
- 12) Portugalete (Bizkaia) – Puntu bat.

OBERENAK TXAPELDUN IZATEKO OSO AUKERA ONA GALDU ZUEN.

Gros zen favorito nagusia, baina Leioako Altzagaren aurka 1-3 galdu ondoren, Oberenak aukera handia zuen txapelketa irabazteko, Javier Habans Aguerrea, Aimer Del Carmen Hernandez, Martin Pascual Garcia eta Cristian Atipov Hadzhiev jokalariek oso talde indartsua osatzen baitute.

Ez zen hori gertatu, ordea. Berdinketa izan zen Altzagaren aurkako emaitza eta baita ere Grosen aurkakoa, azkeneko txandan. Horrela, Altzagak lortu zuen txapelketa eta Oberena bigarren geratu zen, nahiz eta puntu bat gehiago atera tablero bakoitzaren partidetan.

Cristian Atipov Hadzhiev izan zen Oberenako jokalaririk onena. Laugarren mahaian partida guztiak irabazi zituen.

Martin Pascual Garciak 3 puntu egin zituen hirugarren mahaian. 1.757ko Aketza Pereira Lopezen aurkako porrota, ordea, erabakigarria izan zen, horrela Altzagak Oberenaren aurka galtzea saihestu baitzuen.

Aimer Del Carmen Hernandezek 2 puntu egin zituen 4 partidatan. 1.756ko Ignacio Zoco Gallardonoren aurka galdu zuen, Altzagakoen mesedetan.

Javier Habans Aguerreak 2'5 puntu lortu zituen lehenengo mahaian. Aurkarien maila kontuan hartuta, merituzko puntuak.

Txapelketa ez eskuratzea tamalgarria izan bazen ere, bigarren postua zen bere ranking-ari zegokiona. Porrota, ordea, Grosena izan zen, handia.

AZKEN DENBORALDIOTAKO HISTORIA.

2016ko denboraldian: **Hondarribia-Marlaxka** (Hondarribia, Gipuzkoa) (**Patxi Moreno Estebanez, Ibai Dorronsoro Larbide, Ander Tafall Villanueva eta Ander Uranga Odriozola**), garaile; **Martintxo** (Diego Sanz Urueña, Aritz Morante Rafael, Rodrigo De las Heras Figueroa eta Ruben Pomares Muñoz) (Gasteiz, Araba), bigarren; **Gros** (Jose Luis Muñoz Avila, Markel Zuloaga Erauskin, Ivan Iturralde Etxeberria, Josu Manterola Ubillos, Ramon Elduayen Echave eta Inko Martinez Adarraga) (Donostia, Gipuzkoa), hirugarren; **Mikel Gurea** (Odei Lerendegi Las, Manex Regillaga Elias, Alex Pedchenko eta Xabier Vergara Bermejo) (Burlata, Nafarroa), zazpigarren.

2017ko denboraldian: **Gros** (Donostia, Gipuzkoa) (**Jose Luis Muñoz Avila, Xabi Eliot, Ivan Iturralde Echeverria, Josu Manterola Ubillos eta Cecilia Perez Sodupe**), garaile; **Mikel Gurea** (Burlata, Nafarroa) (**Odei Lerendegui Las, Manex Reguillaga Elias, Alex Pedchenko eta Oier Lacruz Ochoa**), bigarren; **Altzaga** (Leioa, Bizkaia) (**Imanol Toledo Sanz, Ignacio Zoco Gallardo, Erlantz Caballero Acosta, Iruñe Palacios eta Lucia Martin**), hirugarren.

2018ko denboraldian: **Altzaga** (Leioa, Bizkaia) (**Imanol Toledo Sanz, Ignacio Zoco Gallardo, Aketza Pereira Lopez, Erlantz Caballero Acosta eta Iruñe Palacios Orueta**), garaile; **Oberen**a (Iruñea, Nafarroa) (**Javier Habans Aguerrea, Aimer Del Carmen Hernandez, Martin Pascual Garcia eta Cristian Atipov Hadzhiev**), bigarren; **Sestao** (Bizkaia) (**Joseba Garcia Ortega, Aitor Gonzalez Rodriguez, Irene Garcia Bolaños, Gorka Puente Diaz eta Asier Vazquez Aveleira**), hirugarren.

PALMARESA.

- 1) **Altzaga** (Leioa, Bizkaia) – Titulu bat.
- 2) **Gros** (Donostia, Gipuzkoa) – Titulu bat.
- 3) **Hondarribia-Marlaxka** (Gipuzkoa) – Titulu bat.

2018-09-29.

Iturria: “<http://chess-results.com/tnr380386.aspx?lan=1&art=0&rd=4&turdet=YES>” webgunea.